Beasaingo udala

GKEF FGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

| ESP. KODEA. | 2019BIBO0018 |
|---|---|

| | |
|---|---|
| ESPEDIENTEA<br>EXPEDIENTE | **Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Beasaingo Udalaren artean "Beasainen gazte eta haurrei zuzendutako Eskola-kirol egokituko eta inklusiborako proiektu integrala" lankidetza hitzarmena.** / Acuerdo de cooperación entre la Federación Gipizkoana de Deporte Adaptado y el Ayuntamiento de Beasain con el fin de llevar a cabo un " Proyecto integral e inclusivo dirigido a niñas-os jóvenes con diversidad funcional en Besain". |
| TITULARRA<br>TITULAR | **KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA** / FEDERACION DE DEPORTE ADAPTADO |

**Beasainen, 2020ko martxoaren 1ean**

**BERTARATUAK**

**Alde batetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna, Alkate modura eta Beasaingo Udala ordezkatuz. Egintza honetarako ahaldundua dago, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikuluak ematen dizkion konpetentzien arabera.**

**Beste alde batetik, Igor Roger Otaegui Bichot jauna, Presidente modura eta Kirol Egokitutako Gipuzkoako Federazioa ordezkatuz, erakundeko Estatutuen bidez eta presidente modura deklaratzeko 2016ko abenduaren 13ko aktarekin esleitu zaizkion ordezkaritza-ahalak beregain hartuz.**

**AURREKARIAK**

**I.- Beasaingo Udalaren asmoa da "Beasainen dibertsitate funtzionala duten haur zein gazteei zuzendutako jarduera fisiko egokitu eta inklusiboko osoko programa" bat bultzatzea, honakoek emandako konpetentziak kontuan hartuz:**

- **Euskadiko Tokiko Instituzioen apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta, zehazki, artikulu hauek:**

- **17,1, 14): *Antolamendua, programazioa eta kudeaketa diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari***

En Beasain a 1 de marzo de 2020

COMPARECEN

De una parte, Don Aitor Aldasoro Iturbe, en calidad de Alcalde y en representación del Ayuntamiento de Beasain. Se encuentra facultado para este acto en virtud de las competencias que le otorga el art, 21,1b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

De otra, Don Igor Roger Otaegui Bichot, en calidad de Presidente y en representación de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, haciendo suyo los poderes de representación que le son concedidos por los Estatutos de la entidad y el acta de proclamación de presidente del día 13 de diciembre de 2016.

ANTECEDENTES

**I.-** Es voluntad del Ayuntamiento de Beasain impulsar un "programa integral de actividad física adaptada e inclusiva dirigido a niñas-os y jóvenes con diversidad funcional en Beasain", teniendo en cuenta las competencias que le otorga:

- La ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi y concretamente los artículos:

- 17,1, 14): *Ordenación, programación y gestión en materia de garantía de ingresos e inclusión social.*

Beasaingo udala

Gkef FGdA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

***dagokienez.***

- **17,1, 20): *Kirolaren eta kirol jardueren antolamendua eta sustapena...***

- 17,1, 20): *Ordenación y promoción del deporte y de actividades deportivas...*

**- Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legea eta hura garatzeko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua eta, zehazki, artikulu hauek:**

- La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y el Decreto 185/2015, de 6 de octubre que la desarrolla y concretamente en los artículos:

- **Legearen 22.1.5 artikulua eta Dekretuaren 33.1.5 artikulua: *Gizarte zerbitzuen esparruan parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.* Udal eskumeneko lehen mailako arreta zerbitzua.**

- 22.1.5 de la Ley y 33.1.5 del Decreto: *Servicio de promoción de la participación y la inclusión social en el ámbito de los servicios sociales.* Servicio de atención primaria de competencia municipal.

- **Legearen 27. artikulua: Lehen arretako gizarte zerbitzuak, autonomiarekin eta gizarteratzearekin lotutako premiak artatzeko.**

- 27 de la Ley: Servicios sociales de atención primaria, para atender necesidades relacionadas con la autonomía y la inclusión social.

**II.- Horretan laguntzeko Beasaingo Udalak 0220.481.231.01.02 partida du kontsignatua udal aurrekontuan, 9.000,00 euroko dirulaguntzakoa, Kirol Egokituko Federazioarentzat.**

**II.-** Para contribuir a ello el Ayuntamiento de Beasain tiene consignada en el presupuesto municipal la partida 0220.481.231.01.02, de 9.000,00 € de subvención para la Federación de Deporte Adaptado.

**III.- Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioa irabazi asmorik gabeko kirol elkarte bat dela, Gipuzkoan kirol egokitua hedatu eta bultzatzeko helburua duena.**

**III.-** Que la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado es una asociación deportiva sin ánimo de lucro que tiene como finalidad la difusión y la promoción del deporte adaptado en Gipuzkoa.

**IV.- Guraso talde batek "Kirol egokituaren hastapenerako" eskatutako informazioaren ondorioz, Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioak Beasaingo Udalari "Beasainen dibertsitate funtzionala duten haur zein gazteei zuzendutako jarduera fisiko egokitu eta inklusiboko osoko programa" bat aurkeztu diola 2019-2010 ikasturtean garatzeko, 2019ko azaroaren 5eko datarekin, bertan, beste alderdi batzuen artean, proiektuaren helburuak, hartzaileak, kostuak eta Udalari eskatzen zaion dirulaguntza jasotzen direlarik.**

**IV.-** Que como consecuencia de información solicitada por un grupo de madres para la "iniciación deportiva adaptada", la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado presenta en el Ayuntamiento de Beasain un "programa integral de actividad física adaptada e inclusiva dirigido a niñas-os y jóvenes con diversidad funcional en Beasain" a desarrollar el curso escolar 2019-2020, fechado el 5 de noviembre de 2019, y en el que se recogen entre otros aspectos, los objetivos del proyecto, destinatarios, su coste y la subvención que se solicita al Ayuntamiento.

**V.- Bi aldeek kontratatzeko nahikoa ahal aitortuta eta elkar behartuz, hitzarmen hau eratzen dela, uneoro Diru-laguntzei buruzko**

**V.-** Reconociéndose ambas partes mutua capacidad para contratar y obligarse, se elabora el presente convenio, teniendo en todo

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

BEASAINGO UDALA ALKATETZA

Beasaingo udala

GKEF FGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

**azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan araututakoa kontuan hartuz.**

momento presente lo regulado por la Ley General 38/2003 del 17 de noviembre de subvenciones y el Real Decreto 887/2006 del 21 de julio, que lo desarrolla.

**HITZARTZEAK**

ESTIPULACIONES

**Lehenik. HELBURUA. Hitzarmen honen helburua da esku hartzen duten aldeen eskubide eta betebeharrak arautzea, kirol egokitua sustatu eta dibertsitate funtzionala duten Beasaingo haur zein gazteei hura egiteko aukera emateko xedez.**

Primero. OBJETO. Es objeto del presente convenio regular los derechos y obligaciones de las partes intervinientes, al objeto de fomentar el deporte adaptado y dar oportunidad para su práctica a los niñas-os y jóvenes de Beasain con diversidad funcional.

**Bigarrenik. DIRUZ LAGUNTZEN DEN PROGRAMA. Hitzarmen hau sinatuta, Beasaingo Udalak IV. atalean aipatutako programari, Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioak 2019-2020 ikasturterako aurkeztutakoari, oniritzia ematen dio.**

Segundo. PROGRAMA QUE SE SUBVENCIONA. Con la firma del presente convenio el Ayuntamiento de Beasain da el visto bueno al programa, al que se hace referencia en el expositivo IV, presentado para el curso escolar 2019-2020 por la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado.

**Hirugarrenik. PROGRAMAREN KOSTUA. Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioak 10.000 euroko kostua duen aipatu programa garatzeko konpromisoa hartzen du beregain.**

Tercero. COSTE DEL PROGRAMA. La Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, se compromete a desarrollar el mencionado programa que tiene un costo de 10.000€.

**Laugarrenik. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA. I. atalean adierazitako arrazoiagatik, Beasaingo Udalak haren finantzazioan laguntza emango du, Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioa exekuzio-kostua diruz lagunduta, hau da, 3.500,00 euroko zenbatekoaz, honek eskatu bezala. Zenbateko hori, behin zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla ziurtatu ostean, modu honetan ordainduko da:**

Cuarto. IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN. El Ayuntamiento de Beasain por la razón apuntada en el expositivo I, contribuirá a su financiación subvencionando a la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado con la cantidad solicitada por ésta de 3.500,00 €, que se abonarán, previa acreditación de estar al corriente de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, de la siguiente manera:

**-% 25 hitzarmen hau sinatzen denean, zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzan eguneratuta egotearen agiriak aurkezterakoan, azken honetarako onuradunak Udalari baimena eman ezean Udalak berak lortu ahal izateko.**

- El 25% a la firma del presente convenio tras la presentación del justificante de hallarse al corriente en las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, salvo que el beneficiario autorice al Ayuntamiento su obtención.

*GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOAK baimena ematen dio espreski BEASAINGO UDALAri, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eta*

*FEDERACIÓN GIPUZKOANA DE DEPORTE ADAPTADO autoriza expresamente al AYUNTAMIENTO DE BEASAIN para la obtención del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y*

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

BEASAINGO ... ALKATETZA

Beasaingo udala

GKEF FGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

*Gizarte Segurantzatik eskura dezan hitzarmen honetan aipatzen den ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK ETA BETEBEHARRAK EGUNEAN IZATEAren baldintza betetzen duela egiaztatzen dituen agiriak:*

*de la Seguridad Social los justificantes acreditativos de que se cumple con la condición señalada en este convenio de estar al CORRIENTE DE LAS OBLIGACIONES TRIBUTARIAS Y CON LA SEGURIDAD SOCIAL.*

☒ BAI ☐ EZ

☒ SI ☐ NO

**- % 75 dokumentazio hau barneratzen duen justifikaziozko kontua aurkeztu ondoren, 2020ko uztailaren 31 baino lehen:**

- El 75% tras la presentación, con anterioridad al 31 de julio de 2020, de la cuenta justificativa comprensiva de la siguiente documentación:

**1. Programan eskainitako zerbitzuak betetzen direla justifikatzeko memoria bat, egindako jarduerak eta eskuratutako emaitzak adierazita.**

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de los servicios ofertados en el programa, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

**2. Burututako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomiko bat, hauek barneratuko dituena:**

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

**a) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.**

a) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

**b) Merkataritza trafiko juridikoan proba-balio baliokidea duten faktura edo dokumentuak, edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurreko lerroaldean aipatzen den zerrendan gaineratuta eta, hala badagokio, ordainketaren egiaztagiria.**

b) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

**c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko diru-sarrera edo diru-laguntzen xehetasunezkoz errenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita, jardueraren kostuaren gainean gehiegizko finantzaketarik izan gabe, uztailaren 21ko 887/2006 Errege Dekretuko 34. artikuluan eta diru-laguntzak arautzeko udal ordenantzaren 7. artikuluaren arabera.**

c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia, no debiendo producirse en ningún caso un exceso de financiación sobre el coste de la actividad, a tenor de lo dispuesto en el art. 34 del RD 887/2006 de 21 de julio y en el artículo 7 de la ordenanza municipal reguladora de subvenciones.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

BEASAINGO UDALA · ALKATETZA

d) Hala badagokio, diru-itzulerari dagokion ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko soberakinik balego, edo haietatik eratorritako interesak baleude.

d) En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

**Bosgarrenik.** INDARRALDIA. Diruz laguntzen den programa 2019-2020 ikasturteari dagokionez, hitzarmena 2020ko uztailaren 31n amaituko da, eta hura izango da diru-laguntza justifikatzeko kontua aurkezteko muga-eguna.

**Quinto**. PLAZO DE VIGENCIA. Dado que el programa que se subvenciona corresponde al curso escolar 2019-2020, el convenio finalizará el 31 de julio de 2020, fecha límite para la presentación de la cuenta justificativa de la subvención.

**Seigarrenik.** PUBLIZITATEA. Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioaren ardura izango da hitzartutako jardueren publizitatea egin eta, era berean, Beasaingo Udalaren lankidetza barneratzen dela bermatzea (haren logotipoarekin).

Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioak Udalaren jarraibideei jarraituko die, kartelak ipintzeko lekuen ingurukoak.

**Sexto**. PUBLICIDAD. Corresponderá a la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado dar publicidad a las actividades convenidas y asimismo garantizar la inclusión de la colaboración del Ayuntamiento de Beasain (con su logotipo).

La Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado seguirá las instrucciones del Ayuntamiento, en cuanto a los lugares para colocación de carteles.

**Zazpigarrenik.** HIZKUNTZA POLITIKA. Hizkuntza Politikako irizpideei jarraiki, euskara lehenetsiko da idatzizko material guztietan (kartelak, inprimakiak, oharrak, etab.) nahiz aurkezpenerako egintza publikoetan.

**Séptimo**. POLITICA LINGÜISTICA. Siguiendo los criterios de Política Lingüística, se dará preferencia al euskara en todos aquellos materiales escritos (carteles, folletos, apuntes,...), así como en actos públicos de presentación.

**Zortzigarrenik.** BERDINTASUNAREN BABESA. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzea. Betetzen ez bada, 24.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Udalak ez du laguntzarik onartuko *(24.2. artikulua: Euskal Herri administrazioek ezingo diete inolako laguntzari eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei).*

**Octavo.** PROTECCIÓN DE LA IGUALDAD. Cumplimiento de la Ley 4/2005 de 18 de febrero sobre igualdad entre mujeres y hombres. En caso de incumplimiento, de conformidad con lo establecido en el artículo 24.2, el Ayuntamiento no concederá ninguna ayuda (*Artículo 24, 2: Las administraciones públicas vascas no podrán dar ningún tipo de ayuda a las asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento*).

**Bederatzigarrenik.** DATU PERTSONALEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan (aurrerantzean DPBLO) ezarritakoa betez, alde bakoitza arduratuko da eragindunen baimen informatua eskuratzeaz, hitzarmen honen xede diren jarduerak garatzeko beharrezkoak diren

**Noveno**. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL. En cumplimiento de lo establecido en la Ley de Protección de Datos de Carácter Personal (en adelante LOPD), cada parte será responsable de obtener el consentimiento informado de los afectados, para el tratamiento de sus datos de

beren datu pertsonalak tratatzeko. Halaber, alde bakoitza arduratuko da hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeaz.

carácter personal, que sean necesarios en el desarrollo de las actividades objeto del presente convenio. Asimismo, cada parte será responsable de garantizar la confidencialidad de los datos personales utilizados en el desarrollo de las actividades objeto del presente convenio.

Elkarteak Beasaingo Udalari datu pertsonalak lagatzen badizkio, datu pertsonalak Udalari lagatzeko eragindunen baimen informatua duela bermatu beharko du uneoro.

En el supuesto de que la asociación proceda a la cesión de datos personales al Ayuntamiento de Beasain deberá garantizar, en todo momento, que dispone del consentimiento informado de los afectados para la cesión de sus datos personales al Ayuntamiento.

Hamargarrenik. Hitzarmen hau sinatuta, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak aitortzen du onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. Artikuluak adierazitako debekuetan sartuta ez ez dagoela.

Décimo. Con la firma de este convenio la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado declara no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiario, recogidas en el art. 13.2 de la Ley General de Subvenciones.

Hamargarrenik. Hitzarmena betetzearen eta sinatzaileek baitaratutako konpromisoen gaineko jarraipen, zaintza eta kontrol bat egite aldera, nahiz haren interpretazioan sortzen diren zalantzak ebazteko, batzorde bat osatzen da, kide hauekin:

**Décimo**. Al objeto de realizar un seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes, así como resolver las dudas que ofrezca su interpretación, se crea una comisión compuesta por los siguientes miembros:

Udal erakundearen aldetik: gizarte-ongizate eremuko zinegotzia, kirol arloko zinegotzia, eta aipatutako eremuetako arduradun teknikoak.

Por parte de la entidad municipal: concejal del área de bienestar social, concejal del área de deportes y responsables técnicos pertenecientes a las áreas citadas.

Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioaren aldetik: gerentzia (zuzendaritza ekonomiko eta teknikoa) eta programaren koordinatzailea.

Por parte de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado: gerencia (dirección económica y técnica) y coordinador/a del programa.

Hamaikagarrenik. ETETEA ETA EBAZPENA. Hitzarmen hau indarraldia amaitzeagatik (2020-07-31) edo eteteko arrazoiren bat gertatzeagatik ezeztatuko da.

Décimo primero. EXTINCIÓN Y RESOLUCIÓN. El presente convenio se extinguirá por el transcurso del plazo de vigencia (31-07-2020), o por incurrir en causa de resolución.

Eteteko arrazoiak izango dira honakoak:

Serán causas de resolución, las siguientes:

- Sinatzaileen arteko adostasuna.

- Acuerdo unánime de los firmantes.

- Aldeek baitaratutako betebeharrak ez

- Incumplimiento de las obligaciones

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

BEASAINGO UDALA · ALKATETZA

**betetzea. Kasu honetan, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko da.**

**Hamabigarrenik.** **Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da eta, horren ondorioz, eskumeneko jurisdikzioa administrazioarekiko auzibidea da.**

**Eta adierazitakoarekin adostasun modura, bertaratuek dokumentu hau sinatzen dute bi aletan, goiburuan adierazitako leku eta egunez.**

asumidas por las partes. En este caso, se seguirá el procedimiento establecido en el art. 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre.

**Décimo segundo**. A tenor de lo dispuesto en el art. 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, la naturaleza jurídica de este convenio es de carácter administrativo, y en consecuencia la jurisdicción competente es la contencioso-administrativa.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede los comparecientes suscriben por duplicado ejemplar el presente documento, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**Beasaingo Udalaren aldetik** / Por parte del Ayuntamiento de Beasain

**Alkatea Alkatea, Aitor Aldasoro Iturbe jauna** // El Alcalde

BEASAINGO UDALA

**Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioaren aldetik** / Por parte de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

**Presidentea**, Igor Roger Otaegui Bichot jauna / El Presidente

Gipuzkoako Kirol Egokituan Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

# Eskola Kirol Egokitua

# BEASAIN 2019-2020

*Aniztasun funtzionala duten haur eta gazteen beharrei erantzuteko ekimena*









# SARRERA

1.- ANTOLAKUNTZA ETA GIZA BALIABIDEAK

1.1.- PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA

2.- AURREKONTUA (Aurreikuspena)

## SARRERA

Aldez aurretik, Beasaingo udalari eskerrak eman nahi dizkiogu berriz ere proiektu hau aurrera eramaten lagunduko digulako, hirugarren kurtsoa jarraian izanik.

Zerbitzu honen bitartez, urritasun egoeran dauden haur eta gazteen kirol eta aisialdi beharra betetzen saiatzen gara.

Eskola ordutatik kanpo, eskola kirolaren barruan edota inguruko kirol klubetako kirol eskaintzatik kanpo gelditzen diren haur eta gazteei zuzenduta, kirol zerbitzu bat eskaintzea da gure nahia.

Beharrezkoa ikusten dugu, urritasun egoeran dauden haurrentzako kirol eskaintza bat egitea, beraien beharretara egokitua eta zuzenduta. Haur hauek, eskola kiroletik kanpo gelditzen dira edota integrazioa ez da ondo bideratzen. Eskola kiroletako taldeak, gehienetan talde handiegiak dira, haur hauen beharretara egokitzeko, eta asteburutako topaketetan konpetizio egoerak dira batez ere planteatzen direnak.

Proiektu honetan, desgaitasunaren eta hezkuntzaren inguruan aditua den talde batek, ekintza programatu, edukin eta helburuen jarraipena eta ebaluaketa egiten ditu.

## 1.- ANTOLAKUNTZA ETA GIZA BALIABIDEAK

**2019-2020 ikasturtean 2 talde ditugu martxan Beasainen, biak lehen hezkuntzakoak.**

Haur eta gazteak, ahal den heinean, antzeko ezaugarri eta adinaren arabera taldekatzen ditugu. Modu honetan, lana aurrera eramateko eta helburuak islatzeko erraztasun handiagoa izango dugu.

Logikoa da pentsatzea, urritasun intelektuala, fisikoa eta mentalak, lan helburu ezberdinak izango dituztela, nola metodologia aldetik ere, irakaskuntza planteamendu ezberdinak.

Arrazoi honengatik, haur kopurua talde bakoitzean ere desberdina izan daiteke. Gerta daiteke talde batzuk bi haurrekin osatzea, beraien beharrak handiak direlako. Beste kasu batzutan, ordea, haur kopurua handiago batekin lan egitea onuragarria izan daiteke.

Aurten, parte-hartzaileren bat gutxiago izango dugu Beasaingo taldean iazko kurtsoan baino. Izan ere, parte-hartzaile batzuk nahiago izan dute Ordiziako taldeetan hasi, igerilekura joateko ordutegiengatik edota hobeto etortzen zaielako.

Ikasturte honetako taldeak, hauek dira une honetan:

| TOKIA | TALDEA | PARTEHARTZAILEAK | PLANTEAMENDUA |
|---|---|---|---|
| ANTZIZAR Kiroldegia Eta LASALLE IKASTETXEA<br><br>11 partehartzaile | Talde I. Urritasun fisikoa.<br>2006-2008 urte bitartean jaiotakoak | 8<br>Iker Arizmendi<br>Luken Usabiaga<br>Iker Herrera<br>Adam Guzman<br>Alen De Astobiza<br>Urki De Astobiza<br>Aya Hassad<br>Hodei Aguilar | Begiraleak:<br>Miren Zabala<br>Haritz Mujika<br>Ane Urbano<br><br>Astelehenak 18:15- 19:15 ordutegian La Salle ikastetxean. |
| | Talde II. Adimen urritasuna eta urritasun organikoa.<br>2005-2010 urte bitartean jaiotakoak | 4<br>Julen Larreta<br>Egoi Zeberio<br>Adur Calvo<br>Aya Hassad (2 ordu astean) | Begiraleak:<br>Miren Zabala<br>Haritz Mujika<br>Ane Urbano<br>Ane Elzmendi / Aitor Moreno<br>Asteazkenak 16:30-17:30 Antzizar kiroldegian. |

Beasaingo asteroko eskola kirol saioez gain, asteburuetan hainbat ekintza eskaintzen zaizkie parte-hartzaileei kurtso osoan zehar baita udan ere (mendia, eskalada, surfa, etab.).

Eskola kirol egokituko saioen jarraipena egiteko helburuarekin, gurasoekin zenbait bilera egiten ditugu kurtsoan zehar. Horrez gain, erabiltzaile gehiagorengana iristeko, eskola eta elkarte ezberdinekin biltzen gara eta behar diren orientazio pertsonalak egiten ditugu eskualdean bertan.

GKEF FGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

Gipuzkoako Foru Aldundia

GIPUZKOA

Beasaingo udala

**Partehartzaileen zerrenda 2019-2020:**

**Iker Arizmendi (Arama)**

**Luken Usabiaga (Beasain)**

**Iker Herrera (Ormaiztegi)**

**Adam Guzman (Legorreta)**

**Alen De Astobiza (Mutiloa)**

**Urki De Astobiza (Mutiloa)**

**Aya Hassad (Beasain)**

**Julen Larreta (Amezketa)**

**Egoi Zeberio (Ormaiztegi)**

**Adur Calvo (Beasain)**

**Hodei Aguilar (Lazkao)**

| JARDUERAREN AURREKONTUA 2019-2020 | | | |
|---|---|---|---|
| **GASTUAK - GASTOS** | | **DIRU-SARRERAK-INGRESOS** | |
| Arbitrajeak, gastu federatiboak | | Bazkide edo kirolarien kuotak | 3.000€ |
| Kirol materiala | 200€ | Babeslegoa | |
| Administrazio gastuak | 500€ | Beasaingo Udala Hitzarmena | 3.500€ |
| Instalazioetako alokerak | | Foru Aldundiaren diru-laguntzak | 3.500€ |
| Sariak, opariak | | Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak | |
| Publizitatea: prentsa, irratia | 120€ | Beste dirusarrerak: | |
| Kartelak, liburuxkak | 200€ | | |
| Aholkularitza zerbitzua<br>Urria-Ekaina (Altak, nominak)<br>4 begiraleak | 650€ | | |
| Telefonoa- Urria-Ekaina | 30€ | | |
| Begiraleak<br>Urria-Ekaina | 6.300€ | | |
| Koordinazio orokorra | 1.200€ | | |
| Kudeaketa orokorra | 800€ | | |
| | | | |
| Guztira/Total | 10.000€ | Guztira/Total | 10.000€ |

Eguna/Fecha: 2019-11-05

**BEASAINGO UDALARI ESKATUTAKO DIRU KOPURUA: 3.500€**

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

IGOR ROGER OTAEGUI BICHOT (02622620E)

GKEF FGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

# ESKERRIK ASKO BEASAIN SAREAN PARTE HARTZEAGATIK!




Web
www.gkef-fgda.org

Twitter
@GipKirolEgokitu

Facebook.com/
www.gkef.fgda.org

GKEF - FGDA · Portuetxe Kalea, 23, B Ataria, 2 solairua, 17 Bulegoa, (CEMEI Eraikuntza) 20018 DONOSTIA
Tel. 943 462 514 · Fax 943 472 512 · info@gkef-fgda.org · www.gkef-fgda.org · Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa